



# BERRIGARA


zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1997, ekainak 20




**BERGARA ETA BILBO ARTEAN**



**Juan Carlos Loidi**



# OPEL



## TALLERES OLA

Olabarren auzoa 2/g.  
Tfnok: 76 33 44 / 45 / 46

BERGARA (Gipuzkoa)

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa)

Tfnok: 79 05 86

EL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.



# VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai, 4 Tl. 76 12 21 Bergara  
Iturrioz, 24 Tl. 79 78 10 Arrasate

*Zure ongizatea  
babesteko gande*



**VENTANAS  
SAN MIGUEL**

**SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).**

**NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.**

**EREDU ETA MOTA GUZTITAKOAK.**

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.**

**30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.**



Lehengo Amaia erretegia. Guztiz berriztua.



## Ixaun



## j a t e t x e a

**O**rain baduzu egun osoa  
ingurugiro naturalean  
igarotzeko aukera.



*Eguneko menua nahiz kartara  
Baserriko oilaskoa eta paellan espezializatuak  
Despedida, jaunartze eta bataioetarako leku aproposena*

Ixaun jatetxea Tf. 15 05 50. Telefonoz ere hartzen ditugu enkarguak

## BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA  
20570 Bergara  
B 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

## Argitaratzailea:

ARDUN Elkarteak.

## Zuzendaria:

Enko Azkarate

## Irredakzioa:

Enko Mendibil

Enko Elkoroberezibar

## Buketazioa:

Enko Iturbe

## Publizitatea:

Enko Romero

## Argipidetzak:

Enko Elortza

## Besten zuzenketak:

Enko Plazaola

Enko Laskurain

Enko Labaien

## Irredakzio kontseilua:

Enko Elortza

Enko Angel Elkoroberezibar

Enko Labaien

## Lanbideak:

Enko Rodriguez

Enko Ortega & Jon Alvarez

Enko Ugalde

Enko Azkarate

## Lanbideak:

Enko Xantxangorri taldea

## Lanbideak:

Enko 500 ale.

## Lanbideak:

Enko Kooper. Elk. (Zubillaga. Oñati)

## Lanbideak:

Enko BERRIGARA

## Lanbideak:

Enko 150/91

## Lanbideak:

Enko 30-6599

## Lanbideak:

Enko BERRIGARA ez du bere gain

Enko irizien erantzunik.

Enko irizien erantzunik.



Aldizkari honek Bergarako  
Aldizkari honen laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Aldizkari honen laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko  
Aldizkari honen laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?

## IZASKUN EGILETA

## Udal Liburutegiko langilea

- Zer dira "Biblioporrak"?

- Urtero fetxa hauetan irakurleei zuzenduta ateratzen dugun gida orientatiboa. Urtean zehar argitaratutako ipuin eta eleberrien aukeraketa bat egiten dugu zer irakurri ez dakitenek nondik jo izan dezaten. Eleberrri eta ipuinen gida adinaren arabera sailkatzen dugu eta horrela gure ustez gehien nabarmendu direnak gomendatzen dizkiegu haur, gazte eta helduei. Liburuak etxera eramateko Udal Liburutegiko bazkidea izatea beharrezkoa da.

- Udan urteko beste sasoitan baino gehiago irakurtzen da?

- Duda barik. Badira urte osoan irakurtzeko ohitura dutenak, helduak



batez ere. Baina urtean zehar irakurtzen ez dutenek edo irakurtzeko aukerarik ez dutenek (ikasleak adibidez) udako hilabeteak aprobetxatzen dituzte irakurketarako.

- Zelako harrera izan duzue orain arte?

- Oso ona, aurreko urteetan bezala jende asko etortzen ari da egunotan liburu eske. Iaz baino jende gehiago hurbiltzen ari da.

**"Urtean zehar argitaratutako ipuin eta eleberrien aukeraketa egin dugu"**

## I T U R R I O N E T I K

## Udal Musika Bandak Intxaurrendoko martxa estreinatuko du

Alfredo Gonzalez Chirlaque Bandako zuzendariak Donostiako Intxaurrendoko auzoko martxa konposatu du. Hori dela eta, Udal Musika Bandak emanaldi bat eskeiniko du Intxaurrendoko berriko plazan San Pedro egunean, ekainaren 29an, bertako jaien barruan. Intxaurrendoko Jai Batzordeak auzoko martxa lantzea eskatu zion Alfredo Gonzalez, Bergarako elkarteek daukaten martxaren estiloko bat egin zezan. Horrela, Felipe Juaristi euskal idazlearen hitzetan oinarriturik, Alfredok musika landu du. Datorren urtetik aurrera Donostiako tanborradan Intxaurrendokoek aipatutako martxa joko dute.

E S A N  
D U T E

"Mexikon lanean ari diren euskal enpresek aktuziorako aukera haundiak dituzte. Mexikoko hamar euskal enpresen artean 81.700 milioi pezetako fakturazioa egin dute azken hiru urteetan.

Bestalde, Lehendakariak Kubara egindako bisitaldiarekin, Jaurlaritzak hango euskal enpresariei bere laguntza adierazi nahi die.

Momenturik egokiena da hauxe, euskal enpresariak orain alde batera lagatzen baditugu beren lekua beste herrialde batzuetako enpresarietako beteko baitute, dagoeneko gertatzen ari den moduan. Garai zail hauetan oso garrantzitsua da Kuban presentzia aktiboa izatea, garai horietan gaitzen direnerako

abantailazko posizioa mantendu ahal izateko. Egia da ikuspegi politiko batetik bisita hau egitea erabaki arriskutsua izan dela. Eusko Jaurlaritzaren ausardia eta sendotasuna erakusten du ekimen honek"

**JABIER RETEGI**  
Industria sailburua  
EL DIARIO VASCO



### CRATURAS CELESTIALES

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30

(Ikuslearen eguna).



### EL IMPERIO CONTRAATACA

Zapatua: 17:00, 19:30.

Domeka: 17:00.



### SOLO SE MUERE DOS VECES

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

## Zinea

▼▼ *Un pez llamado Wanda* filmearekin mundu osoan izugarrizko arrakasta lortu ondoren, 10 urte beranduago, filme hartako protagonistak elkartu dira berriz. Oraingoan zoo baten inguruko gorabeherak azaltzen zaizkigu. Ikusleak erakartzeko jabeak edozer gauza egiteko prest dira. Errepartoan **John Cleese**, **Jamie Lee Curtis**, **Kevin Cline** (lan bikoitzarekin) edo **Michael Palin**.

▼▼ **Irvin Kershner**ek zuzendutako trilojiaren bigarren zati honetan, galaxia inperio maltzuraren hatzaparretatik askatzeko borrokak aurrera darrai. *Luke Skywalker* (**Mark Hamill**), *Han Solo* (**Harrison Ford**), *Leia printzesa* (**Carrie Fisher**) eta beren lagunek Hoth planeta izoztuan inperioko indarrei aurre egin beharko diete. *Luke*ek Jedi maisuaren laguntza izango du.

▼▼ **Ibarretxe** anaien filme honetan umore beltza da nagusi. Filmean *Tete Moran* (**Juan Inciarte**) aktorearen kasua azaltzen zaigu. *Tetek* arrakasta lortu nahi du eta hortarako bere heriotza ere kontutan ez hartzeko prest dago. Egoera horretan, *zombie* paperak aginduko dizkiote bakarrik. **Alex Angulo**, **Rosana Pastor** edo **Saturnino Garcíarekin**.

## Deiak

▼ **Erakusketa.** Ion Andoni Urisabel margolariaren erakusketa Kultur Etxeko erakustokian ekainaren 29ra arte. Aste barruan 6etatik 9etara eta zapatu eta domekian 12etatik ordu bietara eta 6etatik 8etara.

▼ **Benita Gallastegi** bergararraren oleo erakusketa Nahikarín ikusgai ekainaren bukaerara arte.

▼ **Jam aretoa.** Gaur ostirala, 12etatik aurrera *Scorpio* bakalao eta tekno festa izango da Jam aretoan. Bestalde, ostegunean, hilak 26, *Cuatro Clavos* taldearen emanaldia gaueko 10etan.

▼ **Odol ateraldia** eguastenean, ekainak 25, 18:30etatik aurrera Seminarioko lokalean.

## Ogia

▼ **Domeka 22:** Konde.

## FARMAZIAK

▼ **Eguakitza 20:** Estella.

▼ **Zapatua 21:** Mozos.

▼ **Domeka 22:** Mozos.

▼ **Astelehena 23:** Camacho.

▼ **Martitzena 24:** Puy.

▼ **Eguaztena 25:** Guallar.

▼ **Eguena 26:** Estella.

Paper pintatuak - Pinturak

# A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:

8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA

IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE



## KORTA-ZAR

### Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoan  
espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO  
9ETATIK ZBALIK

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

# Udal Musika Banda

## San Pedro eguneko kontzertua domekan

**Udal Musika** Bandak San Pedro eguneko kontzertua domeka honetara aurreratu du. Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzentzen duen taldeak honako piezak eskeiniko ditu igandean 12:30etatik aurrera Espoloian, 12:30etatik aurrera: *El carloteno* (Pasodoblea, Miguel Glez. Bastida), *La belle Elene* (Obertura, J. Offenbach), *El jorobado de Notre Dame* (Banda sonora, A. Menken), *Katuska* (Lehen fañtasia, Pablo Sorozabal) eta *Danza del sable* (A. Khachaturian).

Bandak 14 emanaldi eskeintzen ditu urtean zehar Bergaran eta aurtengo denboraldia amaitzeko igandeko kontzertua eta Santa Marina jaietakoa (uztailaren 20an) geratzen zaizkio Bandari. Era berean, urtero, herriko auzo batean (Osintxu, Labegaraieta eta Angiozar txandakatzu joaten dira) emanaldi bat eskeintzeko ohitura daukate eta aurtengo Angiozarreko parrokiaren izango da irailaren bukaeran, San Migel jailetan. Horrez gain Bandak kontzertuak emango ditu Intxaurrondon (ekainaren 29an), Antzuolan (uztaila-



Bandako hutsuneak betetzeko Musika Eskolako taldeetara jotzen da. ARTXIBOA

ren 19an) eta Billabonan (uztailaren 25ean).

Gaur egun 70 lagun ari dira Alfredo Gonzalez Chirlaqueren batutapean. Berak azaldu digunez, "aurten hiru baja izan ditugu baina Bandari sortzen zaizkion beharren arabera Musika Eskolara jotzen dugu plaza horiek betetzeko". Alfre-

dok dagoeneko 11 urte daramatza Bandaren zuzendaritzan; "nire aitak Banda on bat laga zidan eta basieratik nire asmoa musiko berriak sartu eta banda sinfonikoago bat osatzea izan zen. Jende oso gaztearekin lanean hasi ginen eta orain, datozen 10 urteetara begira, musiko gazte berriak

sartzea komeniko litzateke. Orain 10 urte Bandan hasi zen jendeak oraindik ere hor jarraitzen du, interes baundiz gainera, konpentsazioak baldin badaude ere sakrifizio baundia delako. Beraien artean badira musika irakasle direnak ere. Aurten Bandako lau gaztek euren instrumentuko karrera amaitu dute".

Udal Musika Banda herriko elkarterik zaharrena da, 1832koak baitira Bandaren inguruko lehen datuak.

**"Datozen 10 urteetara begira musiko gazte berriak sartzea komeni da" GLEZ. CHIRLAQUE**

# Larrañaga

BANATZAILEA

Esnea, ura, sagardoa, Errioxako ardoa, garagardoa...

Martoko, 32 behea  
**BERGARA**

**ETXERA ERAMATEN DUGU**

Tf. 76 45 94  
Mobila, 907 - 65 76 34

## Zerbait aldatu al da PNVren jarreran?

Dispertsioa hasieratik babestu eta bultzatu duten euskal politikariek, Euskal Herriko errealitatearekin topo egin dute: euskal gizartearen gehiengoak euskal presoak ahalik eta gertuen egotearen alde agertu da; horregatik, errentabilitate politikoaren arabera bizi diren dispertsioaren konplizeak azkar ibili dira beraien jarrerari beste norabide bat ematen; hau da, boto kopuru gehiago lortu badaitezke,...

Horrela bakarrik ulertu ditzakegu pasada den astebukaeran jeltkideek eginiko deklarazioak. Atucha bera, presoen eskubideen defentsan ari direnen multzoan sartu zen nahiz eta egunero, kalean eskubide hauek eskatzen ditugunon aurka bere ohizko aurpegi errepresibo poliziala erakutsi.

Victoriano Gallastegi ere, ("Kanto"-ren kasuarekin) multzo horretan sartu zaigu nahiz eta orain arte, euskal presoen inguruko pleno edota eskakizunekin eskuak lotsagabeki garbitzeko arazorik ez izan.

Urteetan zehar zuek (Arzalluz, Atucha, Egibar, Victoriano...) diseinatu, bultzatu eta defenditu duzuen euskal presoak eta beraien senitartekoak zigortzeko estregiarekin amaitzeko, utzi iezai-

zue behingoz hainbeste euskaldunon sufrimenduaren kontura egindako politikeoari, *lotsagabeak!*

AMNISTIAREN ALDEKO KOMITEA

## 20 urtez askatasun bila

Gezurra badirudi ere, dagoeneko hogei urte pasa dira Euskal Herrian gay eta lesbianen askapen mugimenduak borrokan hasi zirenetik. Ez dut ukatuko aurrerapen haundiak lortu direnik, baina zuek ere ez didazue ukatuko oraindik ere lan haundia geratzen zaigula aurretik.

2000. urtean sartzekotan gaudenean; konputagailuek telebista eta liburuak ordezkatzeko dihardutenean; umeak kristalezko ontzi baten sortu daitezkeenean... azken finean, gizartea "aurrerrazten" omen doan bitartean, gu itzalpean, izkutuan, zapalduak geratzen ari gara. Batzuek "gaisotasun" honi irtenbideak bilatzen jarraitzen dute, beste batzuek ordea eraso bidez ixilarazi nahi gaituzte, eta nola ahaztu, gutaz negar egin, errukitu eta bide zuzena jarraitzeko esaten duten kristau zintzo horiek.

Baina ez, inork ez du lortuko gu malkurtzea. Ekainaren 28a gainean dugula, urteko beste egunetan bezala, gure iza-

keraz harro sentitzen garela erakutsiko diogu gizarte hipokrita honi, eta argi eta garbi utziko dugu ez dugula etsiko, kalean "normaltasun" osoz ibiltzea lortu arte, ezta gure eskubide guztiak onartuak izan arte ere.

Jo ta ke. Borrokarako gai.

A.O. (NAN: 72.733.212)

## Tiira biraka



## BITTOR RODRIGUEZ



**Jubilatuak Cabarcenora eta San Martzialera**

San Joxepe jubilatuen elkarteak Cabarcenora (Santander) egun guztirako irteera antolatu du datorren egunerako, hilak 26. Animalien parkea bisitatu ondoren, Astilleron bazkaria izango da (paella, legatza saltsan, postrea eta kafea) eta arratsaldean Laredo eta Castro bisitatuko dituzte. Interesa dutenek lehenbailehen eman behar dute izena jubilatuen egoitzan (prezioa: 3.000 PTA). Bestalde, San Martzial egunean, ekainaren 30ean, San Martzialera igotzeko autobusa izango da goizeko 11etan. Eguerdiko 12etan, ostera, meza izango da eta ordubietan kanpo bazkaria. Autobusa 200 pezeta kostako da eta bazkaria, berriz, 1.000 PTA. Izenematea jubilatuetan egin behar da ahalik eta aguroen.

**HILDAKOAK**

**Evaristo Txintxurreta Lete**  
Ekainak 15, 70 urte.  
**Markos Alberdi Larrañaga**  
Ekainak 15, 71 urte.

**JAIOTAKOAK**

**Julen Gorosabel Azkarate**  
Ekainak 11.

**Ianera itzuli dira Tavexen greban ia hiru hilabate egon ostean**

**Greban** ia hiru hilabete eman ondoren, martitzenean arratsaldeko ordubietan berriz ere lanera itzuli ziren Algodonera eta Tavesako langileak. Sindikatuek eta zuzendaritzak joan zen astean lortu zuten aurreakordioa eta astelehenean Zabalo-egin egin zen langileen batzarrak onartu ondoren, 97 eta 98rako konbenioa sinatu zen Eibarren astelehenean. Honenbestez, 1997rako %5,25eko soldata igoera eta 98rako KPIkoa adostu dute langileek eta zuzendaritzak, 97 eguneko grebaldiaren ondoren.

**Maiatzak 13: estrategia aldaketa**

Algodonera eta Tavesako langileek martxoaren 21ean ekin zioten grebari. Azken hiru urteetan soldata igoerarik izan ez dutela eta, %8ko igoera eta urtean 9 orduko lan murrizketa eskatzen zuten langileek. Konbenioa sinatzeaz gain, Biabilitate Plana negoziatzea ere eskatzen zuten. Hiru hilabete hauetan hainbat bilerak izan dituzte sindikatuek eta zuzendaritzak, eta Tavexeko Bergarako lantegietan ordezkaturik dauden lau sindikatuak



Huelgan 87 egun egon dira Algodonera eta Tavesako langileak.

bat eginik izan dira, maitzaren 13an negoziazio mahaia apurtu zen arte. Harrezkero, etorkizuerako Biabilitate Plana (inbertsioak, jubilazioak, lanpostu berriak) alde batera laga eta soldata igoera bakarrik negoziatzea planteatu du ELAk, sindikatu nagusiak. CCOO, LAB eta UGT estrategia horrekin ados ez egon arren, ELak bere planteamentuak aurrera atera zituen langileen batzarrean eta azkenean soldata igoerari buruzko akordioa lortu dute zuzendaritzarekin. Astelehenean egin dako batzarrean 123 langile zuzendaritzarekin lortutako akordia onartu eta greba bertan behera

lagatzearen alde agertu ziren eta beste 56 kontra.

**CCOO eta LAB kontra**

Greba deskonbokatu eta zuzendaritzarekin akordioa lortu arren, sindikatuen arteko ezberdintasunak agerian geratu dira. ELak garaipen historikoa izan dela esan du, baina CCOO eta LABek akordioarekin ezadostasunak agertu dituzte etorkizuneko planik eta langile berrien kontrataziorik hitzartu ez delako. Enpresako ordezkariak, bestalde, Biabilitate Planari buruz akordiorik lortu ez izanak Tavesako Bergarako lantegien etorkizuna kolokan jartzen duela adierazi dute.



# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55

### Udal liburutegiaren ordutegi berria

Ekainaren 30etik aurrera goizeko 8etatik eguerdiko ordubata arte izango da zabalik Udal liburutegia; beraz, arratsaldez itxita egongo da. Bestalde, liburutegia abuztuaren 11tik 17ra arte izan ezik) baina uztailean bezala, goizez bakarrik.

### Testamentuari buruzko hitzaldia

Testamentua, heredentzia eta donazioari buruzko hitzaldia izango da Antzuolako Udaletxeko Pleno aretoan datorren eguastenean arratsaldeko 7etan. Carmen Arnes eta Luis Kortazarrek hitz egingo dute. Hitzaldia Antzuolako Jubilatuen Elkarteak eta Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatu dute.

### Bedelkarren erakusketa

Bedelkarrek eskulan erakusketa antolatuko du ekainaren 28rako herriko kaleetan. Bertan, besteak beste, San Joxepe elkartekoak, Simon Arrieta zeramika eskolakoak eta Jarduneko eskulan ikastaroan dabiltzanak parte hartuko dute. Hala ere, erakusketan parte hartu nahi duen edonork 76 04 68 telefonora deitu dezake.

### 44ko kintoen bazkaria

1923an jaiotakoek bazkaria egingo dute uztailearen 12an Antxonin jatetxean. Eguerdiko 12etan meza izango da Siervetan eta ordubietan argazkia aterako dute; ondoren bazkaria izango da. Interesa dutenek 2.000 pezeta ordaindu eta txartela eskuratu dezakete Antxonin bertan. Emakumezkoak ere joan daitezke bazkarira.



Besteak beste, Kutzaren irabazien zati batzuekin etxebizitza sozialak egitea eskatzen zuen HBk.

## Kutzari eta etxebizitzeari buruz HBk aurkeztutako mozioa ez zen onartu

*Kutzaren etekinak etxeak egiteko erabiltzea eskatzen zen*

Joan zen asteko Ez Ohiko Plenon HBk Kutzari buruz aurkeztutako mozioa ez zen onartu; gobernu taldeko 10 zinegotziek kontrako botoa eman zuten. Kutzari dituen etekinaren zati bat etxebizitzak eraikitzeko Udalei ematea eskatzen zen mozioan. Hiru proposamen egiten ziren: batetik, Gipuzkoako Udalentzat gutxienez 5.000 milioi pezetako kreditu-lerro berezi bat egokitzeari udal lurretan eraikuntzak egin edota eraikin zaharrak erosi eta egokitu ahal izan ditzaten; bestalde, kredituak oso epe luzera ematea eta interes tasak diruaren prezio ofizialarena izatea eta, azkenik, Udalek etxebizitza horiek jabetzan nahiz alokairuan hartzeko araudia egitea. HBk hiru proposamenekin bat etortzea, Kutzako gobernu batzordean

dauden Bergarako Udaleko ordezkariari Kutzako Batzar Orokor batean eztabaida bultzatu eta proposamena defenditzea eta akordioa Kutzara eta Gipuzkoako Diputaziora bidaltzea eskatzen zion udal batzarrari.

Boto esplikazioan, Koldo Pereirak, gobernu taldearen izenean, esan zuen Etxebizitza politika Jaur-laritzako Hirigintza eta Etxebizitza Sailari dagokiola eta HBk Kutzari egiten dion eskaria baino harutzago doazela urtez urte erakunde horren egitasmoak eta laguntzak. Hala ere, etxebizitza eskuratzeko dituen zailtasunen aurrean eta bereziki, alokatzeko etxebizitzaren problematikaren aurrean dagoen kezkaekin bat eginez, gai hau EUDELeke aztertu eta Jaur-laritzari proposamenak luzatzea beharrezkoa zela esan zuen.

A  
R  
R  
A  
N  
O



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

**Sugoi**

**ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA



**DEBA  
GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar  
**T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37**



## San Joxepe jubilatuen elkarteak kartel lehiaketa konbokatu du

*Urrian antolatuko den kultur hamabostaldia iragartzeko*

San Joxepe jubilatuen elkarteak urrian antolatuko duen Kultur hamabostaldia iragartzeko konbokatu den kartel lehiaketaren berri eman zuten martitzenean prentsaurrekoan San Joxepeko zuzendaritza batzordeko kideek. Kultur hamabostaldiarekin eta kartel lehiaketarekin lotu nahi dutena da jubilatuek gaur egun duten irudia aldatu eta gaur egungo gizartearen duten presentzia eta zeregina bultzatzea. "Erretiratuta egotetik gizartearen parte hartzerara" izango da kartel lehiaketan landu beharko den gaia. "Gaur egun gero eta jubilatutako gehiago dago eta gero eta gazteagoak dira gainera. Ez gara erretiratuak, sujeta aktiboak baizik eta gauza asko eskaini diezaiokegu gizarteari. Urriko lehen hamabostaldian antolatuko ditugun ekitaldietan gai hau aztertu nahi dugu" esan zuen Tomasa Zabalabetak San Joxepe elkartearen presidentek. Hitzaldiak -Jose Antonio Pagola izango da-, erakusketak, mahai inguruak eta irteerak antolatuko dira.

Kultur hamabostaldia iragartzeko erabiliko den kartel lehia-

San Joxepe elkartearen zuzendaritza batzordeko kideak.



ketan edozeinek har dezake parte eta edozein teknika onartuko da; lanak 40 x 60 cm.ko neurrian eta euskarri gogorrean aurkeztu beharko dira. Gaia, esan bezala, erretiratu egotetik gizartearen parte hartzerara izango da eta kartelak ondorengo testua izan beharko du: Bergarako jubilatuen I. Hamabostaldia kulturala. 1997ko urria. Lanak jubilatuen egoitzara eraman beharko dira uztailearen 14tik 17ra bitartean, goizeko 11:30etatik 13:00etara edo 15:00etatik 18:00etara. Epaimahaiak 75.000 pezetara sari bakarra emango du eta uztailearen 30a baino lehen erabakiko du irabazlea. Lehiaketara aurkezten diren lanekin erakusketa egingo da Kultur Etxean irailaren 26tik urriaren 3ra arte. Saririk jaso ez duten lanak jubilatuen egoitzan hartu ahal izango dira urriaren 7tik aurrera. Saritutako lana San Joxepe elkartearen jabetzan geratuko da.

## Enpresa berriak sortzeko ideia lehiaketa

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzaren bitartez, enpresa berriak sortzeko Gazteentzako Ideia Lehiaketaren XII. edizioa antolatu du. Lehiaketan 18 urtetik 30era arteko gazteek hartu dezakete parte eta helburua gazteek eurentzako lanpostu berriak sortu ditzaten ideiak aurkeztea da. Parte hartu nahi dutenek ideia bakoitza azaltzen duen txostena aurkeztu beharko dute irailaren 19a baino lehen Kulturako Lurralde Ordezkaritzetan. Ideiari interesgarrienei 1.100.000 pezetara bitarteko sariak emango zaizkie eta proiektua gauzatzeko elkartearen erabakia, 2.500.000 pezetara bitarteko beste laguntza bat ere lortu dezakete.

## San Martzialeko kantina

Datorren eguastenean amaituko da San Martzial egunean kantina hartzeko eskariak egiteko epea. Irabazi asmorik gabeko elkarte edo erakundeek egin ditzakete eskariak eta lehentasuna izango dute azken bi urteetan adjudikatu ez zaienak. Eskariak Udaletxeko Erregistro Orokorrean egin beharko dira, esan bezala datorren eguasteneko eguerdia baino lehen.

## Bertso afaria Antzuolan

Antzuolako Olalde elkartearen Jexux Mari Irazu eta Jon Sarasuarekin bertso afaria izango da datorren eguakitzean, hilak 27, gaueko 9:30etan. Prezioa: 1.000 pezeta.

**iRUDI**  
Erlojudenda  
Bitxitegia  
Ibargarai, 2  
☎ 76 51 65

ileapaindegia  
eder gela  
— disdira —  
Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

**ONENA**  
TINTATEGIA  
Barrenkale, 29 BERGARA

# Ingurugiroa babesteko plana

## Antzuolako Udalak ingurua zaintzeko egitasmoa aurkeztu du

**“Antzuolako Udalerriaren Ingurugiro Azterketa eta Plangintza Orokorra” aurkeztekoa zen atzo iluntzean Antzuolako Udaletxean.**

Plangintza honen helburu nagusia Antzuolako udalerriak gaur egun ingurugiroarekin lotuta dituen arazo eta kezkek mahaigaineratu, hausnartu eta konpontzeko zenbait neurri hartzea da. Asmoa herria eta inguruak txukun gordetzeko urratsak ematea da. Honela, ekintza zehatzak bultzatzeaz gain, herritarrak ingurugiroarekiko kontzientzia hartu dezatela lortu nahi da. Inigo Ramirez Kultura zinegotziak eman digu plangintzaren berri: “Antzuolako herriak ingurugiro aldetik degradazio haundirik ez du izan, baina oraingo egoeraren mantentzeko eta hobetzeko urratsak eman behar dira. Bestalde, dagoneko ekintza konkretu batzuk martxan jarri dira, esate baterako, lorategien politika, fatxadaren garbiketa edota zabortegien egoeraren azterketa, baina horien jarraipena egin beharra dago. Azkenik, azpiegiturak direla eta -Beasain-Durango errepede be-



Antzuolako Udala aintzindaria da era honetako plan bat martxan jartzen.

*rria edota Abiadura Haundiko Trena-, Antzuolako udalerriak bainbat aldaketa ezagutuko ditu buruen urteetan. Horiek guztiak kontutan hartuta ingurugiro plangintza martxan jartzea interesgarria iruditu zaigu. Beraz, hiru arlo kontutan izanik kaleratu dugu ingurugiro plangintza hau: alde bategatik daukaguna abalik eta txukunen mantentzea; bestetik, martxan jarritakoari jarraipena ematea eta azkenik, etorkizunari aurre egiteko hausnarketa egitea”.*

Plangintzan 14 helburu zehatz markatzen dira eta puntu bakoitzaren helburuak eta horiek lortzeko martxan jarriko diren ekintzak zehatzen dira. Besteak beste honako hauek dira plangintzaren helburu zehatzak: zabortegiak arautu, kontrolatu eta ixtea; herriko hormetako pintadak eta kartelak arautu eta kontrolatzea; parkeak eta jardinak bultzatu eta errespetaraztea eta espazio naturalak zaintzea; etxeko zaborren erabilera, hainbat mendi-kiroletako jarduerak, en-

presen isurketak, mendiustiaketa edota txabolismoa kontrolatu eta arautzea; herriko apainketa orokorra bultzatzea; herrigunean automobil garbiketarako debekatu eta trenbidea berreskuratzea.

Plangintza honetan Udaleko hainbat batzordek jardun du lanean; hala ere, herriko zenbait talde ere egitasmoan parte hartzeko gonbidatu nahi dira. Ingurugiro plangintza datoen bi urteetarako egingo da hasiera batean eta presupostua bi milioi eta erdi pezeta ingurukoa da.

**MINER**  
ardak

**10**  
urte

Termino de Ugarte, Viña Albina,  
Cordovín klaretea,  
Ameztoi txakolina etabarren banatzailea.

Miner ardoak-ek, bere 10. urteurrena dela eta, **bi lagunentzako Kubarako bidaia** zozketatzen du ardo-kaxa erosleen artean. Irabazlea, 1997ko irailaren 19ko ONCEko zozketako azken lau zenbakiekin bat datorrena izango da. **Eskaerak egiteko deitu 76 01 34 telefonora. ETXERA ERAMATEN DUGU.**

Osasuna

## Zaharren depresioa

**- "Bakardadea nola hautsi, depresioa gainditzeko" izenburuko hitzaldia eman duzu Jubilatuetan. Bakardadea al da depresioaren eragilea?**

- Bakardadea kausetako bat izan daiteke. Bakardadeak depresiora eraman dezake pertsona bat eta, era berean, depresio bat izatean, aislatu edo bakarrik egotea nahi izan dezakegu. Baina egia da bakardadea depresioaren eragileetako bat izan daitekeela. Zahartzaroan asko sufritzen da bakardadea, iceberg moduko bat da hori; puntan diagnostikatutako depresioak leudeke eta azpian, bakarrik, triste bizi diren pertsona asko. Esan behar da bi bakardade mota daudela: aukeratzen duguna (atsegina) eta nolabait inposatzen zaiguna (problematikoa).

**- Zeintzuk dira depresioa sortzen duten beste faktoreak?**

- Orokorrean, pertsonaren bizitzan egon daitezkeen kausa estresagarriak: maite duzun pertsona baten heriotza, jubila-

zioa, erlazio sentimental baten haustura..., asko dira. Baina inportanteena ez da kausa; batzuetan ez da kausa jakiten baina bai depresio egoera hori zergatik mantentzen den.

**- Zergatik izaten da?**

- Depresioa kausa heredagarriak edo autoestima baxua izateagatik ere etor daiteke. Eta ditugun pentsamenduak ere klabeak dira. Negatiboki pentsatzen badugu, gaiz-



**MERCEDES ACERA**  
(Psikologo klinikoa)

ki aktuatuko dugu, ondorioz gaizki sentituko gara eta beraz zirkulu batean sartuko gara: gaizki pentsatu, gaizki sentitu eta era desegokian aktuatzea. Ez gara hortik irtetzen.

**- Zer egon daiteke?**

- Ezin gaitezke kanpotik etorriko den soluzio baten zai egon, gure al-

**"Ezin gaitezke kanpotik etorriko den soluzio baten zai egon, zerbait jarri behar dugu"**



Oso garrantzitsua da erlazio sozialak lantzea. ARTXIBOA

detik ere zerbait jarri behar dugu eta lehen pausoa geuk eman behar dugu. Tristura sentimendua aldatzea interesatzen zaigu, depresioan dagoen gogogabetasuna, plazer falta gainditzeko. Sentimenduak aldatzea oso zaila denez, beste bi faktoreengan aktuatuko dugu: pentsamendua eta portaera. Pentsamendu negatiboak (zertarako joango naiz ni festa horretara? adibidez) aldatu eta pentsamendu errealista goak izaten ahaleginduko gara hobeto sentitzeko. Pentsamendu negatiboak aldatzean, gure sentimenduen eragina izango dugu. Eta portaerari dagokionez, etxean geratu beharrean, aktibitate ezberdinetan hartuko dugu parte, jubilatuetan antolatzen diren irteera edo txapelketetan adibidez. Iharduera atseginak egitean jarrera aldaketa nabaritu dugu eta horrela pentsamendua aldatuko dugu. Era berean, oso garrantzitsua da erlazio sozialak lantzea. Zahartzaroan adibidez, gure adinekoak joaten diren heinean, beste belaunaldiko jendearekiko harremanak lantzea ezinbestekoa da. Eta inportanteena ez da amistadeen kantitatea, kalitatea baizik. Konponente afektiboa egotea izaten da erlazioaren kalitatearen seinale.




Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerrean. Tf. 76 71 19

# ANTIA

**HARATEGIA URDAITEGIA**

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*


**Matxiategi ☎ 76 15 09**



**FGUREN  
PINTURAK**

*pinturak eta paperak*

Irala kalea, z/g • 20570 BERGARA  
Tf. eta faxa 76 33 01



Juan Carlos Loidi. Bergara, 59 urte.

Bilboko Udaleko zinegotzia.

Abokatu-ekonomilaria.

UNED eta ETEOko irakasle izana.

# Juan Carlos Loidi

**Juan Carlos Loidi bergararrak 10 urte daramatza Bilboko Udaletxean lanean, EAJ alderdia ordezkatzuz. Zortzi urtez Hazienda eta Ekonomiko departamentuko buru izan ondoren, BBK-ko presidenteordea dugu eta hirugarren legealdi honetan Osasun eta Kontsumoko ardura dauka. Joan zen egua-kitzean, Julio Azkargortari eskeinitako omenaldi ekitaldian hartu zuen parte.**

**- Zela ezagutu zenuen Julio Azkargorta?**

- Berak bultzatutako hainbat enpresa biltzen zituen Orcesa taldean lanean hasi nintzen 23 urte-rekin, 1962an. Nire aita Orcesa taldeko abokatu

zen eta Julioren familia ere betidanik ezagutu dut, Julio bera nire familiaren etxe azpian bizi baitzen orduan. Harreman hestua izan genuen beti. Hasieran, Orcesa taldeko asuntoak antolatzen hasi nintzen eta gero, suhiltzaileen antzera, taldeko enpresa guztietan ibili nintzen: forja eta estanpazioko Santiago Corcostegui enpresako gerente lanetan, ondoren Confecciones Vascas-en (garai batean, Barrenkaleko lokal txiki batean, egunero 2.000 praka bako egiten ziren), Gene-

ral Mecanica-n..., 1979an Bilboa bizitzera joan nintzen arte.

**- Zer nabarmenduko zenuke Julio Azkargortaren izaeratik?**

- Kapitana zen Julio. Ekintzailea, finantzaria eta sortzailea. Hori nabarmenduko nuke gehienbat. Bera lanean hasi zeneke ingurune ekonomiko ez zen batere ona eta baldintzak, orokorrean, oraingoak baino txarragoak ziren. Baina izugarritzko indarra zeukan Juliok eta bere barneko indar hori erabiliz, hainbat enpresa ekimeni aurre

egin zion, arrakasta haundiz gainera. Industria horiek Bergarako hainbat belaunaldiren lan-iturri izan dira. Bergarako herriak eskerrak eman behar dizkio Juliori egin zuen lanagatik eta beraz, eskeini zaion omenaldia guttiz justifikatuta dago.

**- Berak egin zuen lanetatik, zein destakutuko zenuke?**

- Zaila da horri erantzutea. Behin enpresa bat sortu ondoren, proiektu berri batean buru-belarri sartzen zen. Sortzaile hutsa zen eta etengabe ari zen proiektu berriak az-

**“Julio Azkargorta kapitana zen; ekintzailea, finantzaria, sortzailea”**

tertzen. Pentsa ezazu..., Bergaran motorrak egitekotan izan ginen!! Ingala-terratik Scooter bat ekarri genuen, BSA (Birmingham Small Arms Group) lantegitik hain zuzen ere. Kawasaki moduko enpresa bat zen hura eta hemen, General Mecanican, aukera ezberdinak aztertzen izan ginen baina proiektua ez zen azkenean aurrera atera. Horrek bere izaeraren ideia eman dezake. Beste garai batzuk ziren haiek eta, gehienetan, alde kreatiboari finantzieroari baino garrantzia haundiagoa ematen zitzaion.

**- 1955-1970 bitartean erabateko aldaketa jaso omen zuen Bergarak...**

- Bai, urte bitarte horretan sekulako aldaketak eman ziren Bergaran. Urte oparoak, emankorrak izan ziren, bai urbanismo aldetik, enpresa aldetik

ere bai... Jende mordoan etorri zen kanpotik Euskal Herrira lan egitera eta Bergaran ere nabaria zen industriak izandako gorakada.

**- Eta 1973eko krisialdiak nolako eragina izan zuen herrian?**

- Modeloak aldatzeko garaia etorri zen, produkzioan eta baita politika mailan ere, aldaketa haundiak eman ziren. Politikoki oso momentu biziak izan ziren. Inmigrazioa geratu egin zen 1973 urte ingurutik aurrera, ez zen jende gehiagorik etorri kanpotik hona lan egitera. Egoera berria asumitu beharra zegoen eta garai berriei egokitzeko ordua heldu zen. Momentu horretan zenbait enpresak aurrera egin ahal izan zuten eta beste batzuk, berriaz, porrot egin zuten.

Bergaran ere eragina antzerakoa izan zen. Or-

cesa taldean ere denetarik egon zen; hainbat enpresa ondo moldatu ziren eta beste batzuk, berriz, krisialdiaren ondorioak jasan zituzten. Beharbada enpresarik inportanteena edo gogorrena Mayc izan zen (oraindik ere hor jarraitzen du indarrez) baina taldeari pasatu zitzaiona zera izan zen: ez zeukala aldaketa horiei guztiei aurre egiteko beste diru.

**- Zela ikusten duzu gaur egun Bergarako industri egoera?**


- Pentsatzen dut orain urte onak datozela. Goierriin, esate baterako, gazteek lana daukate (CAF etabar oso ondo ari dira lanean) eta oraingoa baino momentu hobea datorrela ematen du. Bergarak beti izan du siderurgia, testila eta beste sektore batzuk. Lau hanka izan ditu Bergarako in-

dustriak eta lau hanketako euskarria duen mahaia oso ondo dago. Beste herri batzuk hanka bakar batean oinarritzen dira (Laudio adibidez) eta uste dut alde horretatik, behintzat, Bergara nahiko aberatsa dela, dibersifikazio hori oso ondo datorkio herriko industriari, aurrera egiteko aukera gehiago baitago.

Oraingo arazo nagusietako bat, nire ustez, jaiotze tasarena da. Euskal Herriko jaiotze tasa munduko baxuenetarikoa da gaur egun. Lehen, hemengo familiek 10 seme-alaba eta horrela izaten zituzten eta orain bakar-rarekin nahikoa izaten dute.

**- Zer egin behar da berrindartze ekonomiko lortzeko?**

- Hemengo enpresa izpiritua oso ona izan da beti eta berrindartze ekonomikoaren motorra hor



## URREZKO INTSIGNIA AZKARGORTARI

Miguel Altuna Institutuko aretoa leporaino bete zen Julio Azkargortari eskeinitako omenaldi-ekitaldian. Hitzaldian, Mikel Lazpiur industri gizonak, Azkargortaren ibilbidea oinarritzat harturik, enpresa bat martxan jartzeko jarraitu beharreko pausuak azaldu zituen; Loidik, berriz, egindako lanak gogora ekarri eta Azkargortaren moduko pertsonen garrantzia azpimarratu zuen eta, azkenik, Jabier Retegi Industria sailburuak Juliok aurrera eraman zuen lanbide heziketa eta industri garapenaren arteko loturaren beharra destakatu zuen. Hirurak bat etorri

ziren bere jaioterriarentzat Azkargortak egindako lan sozial bikaina goraiatzeko orduan. Diskurtsoen ondoren, Victoriano Gallastegi alkateak urrezko insignia eta herriko Hiribildu Agiriaren kopia entregatu zizkion Maritxu Arregi Julioren alargunari. Era berean, Jose Mari Larrañaga Miguel Altuna Institutuko zuzendariak Julio Azkargorta ikastetxeko ikaslea zeneko espediente akademikoaren koadro bat eman zion oroigarri modura. Omenaldi ekitaldian, besteak beste, Julio eta Maritxuren hiru seme-alabak eta bilobak izan ziren.

dago. Ideiak landu eta arrakasta lortzeko aukera daukate gaur egungo gazteek eta aurkezten diren oportunitateei eutsi behar zaie. Gure aitajaunek ere hori egiten zuten eta aurrera egiteko bide bakarra pasibitatea desagertaraztea litzateke, hori da klabea.

**- Orain gazteek ez dute lan egiteko horrenbeste aukera...**

- Lehen baino aukera gehiago dago orain. Kanpora joan nahi duenak ere lehen baino erreztasun gehiago ditu gaur egun. Oraingoa ez da 40ko hamarkadako moduko garai oparoa baina denok ditugu gure aukerak bizitzan eta horiek aprobetxatu behar dira, besterik ez.

**- 1979an aldegin zenuen Bergaratik. Zela**

**ikusten duzu gaur egun zure jaioterria?**

- Mannesman Demag enpresaren iragarki bati erantzunez, Bilbora lan egitera joan nintzen, ez nuke esango Bergaratik aldegin nuela. Oraindik ere ama bertan bizi da eta lagun asko dauzkat hemen. Eszedentzia eskatuta daukat Mannesman Demag-en (besteak beste, Bergarako Zerrajerarekin

“colada continua” delakoa landu dute) eta zinegotzi postua uzterakoan bertara bueltatuko naiz lanera. Presoen antzera, zinegotzi postua lagatzeko falta zaidan denbora zenbatzen ari naiz. 104 astebe geratzen zaizkit, 1999ko ekainaren 15ean amaituko baita oraingo legealdia.

Bergara aldatu? Ez dut uste 1979tik asko aldatu denik. Aldaketa fuertena aurrerago izan zen, 1955-70 bitarte horretan. Sekulako aldaketa izan zen orduan baina ikusten dut oraindik ere bergararrak gogor ari direla lanean.

**- Zure aita Ariznoa hoteleko sortzailetariko bat izan zen. Zela baloratzen duzu orain bi hotel eta pentsio bat egotea herrian eta turismoak izan duen gorakada?**

- Bergararentzat oso ondo dago hori. Bergaran gehienbat turismo industrial emango dela pentsatzen dut. Herriko eta inguruko enpresetara datozen langileei hotel eskeintza hori primeran etorriko zaie. Hotel txiki eta merke horiek etorkizun ona izan dezakete.

**- UNEDeko irakaslea ere izan zinen. Jarraitu al duzu UNEDek azkenaldian jasandako aldaketa?**

- UNED oso gauza ona da Bergararentzat. Aldaketa haundia orain izango da, Arrasateko Unibertsitatea eta ETEOko Fakultatea martxan jartzean. Horrek beharbada eragina izango du Bergarako UNED zentruarengan baina hainbat jende (25 urtetik gorakoak batez ere) UNEDeko aukera hor izango du. Oraindik oso modelo egokia dela uste dut.



Azkargortaren familiak hainbat opari jaso zituen Gallastegi alkatea eta Larrañaga zuzendariaren eskutik.

- **Bilbok sekulako al-daketak jasan omen ditu azken urteetan. Zela baloratzen duzu aldaketa hori?**

- Oraindik ere aldaketa gehiago egitea behar da, Bilbo Euskal Herriko hiriburu ekonomikoa baita. Milioi bat lagun bizi dira han eta Metroa edo Guggenheim museoa egin badira ere, oraindik ere Bilbok diru mordo behar du, batez ere hainbat auzotan behar beharrezkoak diren proiektuak egiteko. Jendeak uste du Bilbon diru asko dagoela baina dirua Gasteizera doa. Otxarkoaga eta beste zenbait auzotan sekulako beharrak dauzkate, jende gehiena ikaratuta geratuko litzateke hango bizi baldintzekin. Oraindik ere diru asko behar da Bilbon.

Bilboko itxura berria? Bai, gustatzen zait; Abando-Ibarrako edifizio berriak ondo geratu dira eta Guggenheim museoko edifizioa zoragarria da. Jendeak denetik esaten du, baina niri, behintzat, asko gustatzen zait. Bilbainada bat izan da baina ondo dago.

- Zure departamen-

Ostiraleko omenaldian parte hartu zutenek Julio Azkargotaren alderdi ezberdinak azaldu zituzten.



**tuan zelako beharrak dituzue? Zeintzuk dira proiekturik inportanteenak?**

- Osasun heziketaren ardura eta elikagaien osasun kontrola dira gure proiekturik inportanteenak. Era berean, Osakidetzarekin batera egindako elkarlana haunditzea, drogomenpekotasun zerbitzuan prebentzioa eta

errehabilitazioa lantzea eta, bestalde, kontsumitzaileen eta Bilboko komertzioaren defentsa. Udal azoka eta merkadilloen zerbitzua ere hobetu beharra dago. Horiek dira ardatz nagusiak legegaldia amaitu bitartean.

- **Bukatzeko, zela bizi du "bilbotar" batek gipuzkoarren eta bizkaitarren arteko lehia?**


- Ni bergararra naiz. Bergarar-donostiar mordo ezagutuko dituzue; ba ni bergarar-bilbotarra naiz edo bilbotar-bergararra, nahi duzuen moduan. Ez diot ez bata eta ez besteari uko egiten. Hori bai, futbol kontuetan, Athletic-ekoa naiz. Baina benetan nahiko nukena Eibarrek igoera lortzea da.

**“Jendeak uste du Bilbon diru asko dagoela baina diru guztia Gasteizera doa. Bilboko hainbat auzotan sekulako beharrak dituzte”**

**SUBIJAI**

**Gazteentzako moda**

Irizar, 1 ☎ 76 42 41



Ari ✓ an Bodega

Ardoak

*López Ojeda*

Bodegak

Tf. 76 27 76 Faxa 76 38 52 Amillaga 25

**San Martzialarako ardoa!**

Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

**ZABALETA  
ERROTULOAK**

Mota guztietako errotuloak  
Fatxadak, eskapareak...

**ARREGI**

**Eraikuntza  
materialeak**

Biltegia Tellerian, Labegarietan.  
Tfnoa: 76 27 93

## Toki berriak ezagutzerako orduan, turismo bulegoetara jotzen al duzu?



**Ignacio Bilbao**

Nahiago dut nire kontura ibiltzea edo jendeari galdetzea, ez naiz sekula turismo bulego batean egon. Gainera ezagututako tokietara joaten naiz normalean.



**Jesus San Martin**

Hortik zehar joaten naizenean dena gertu eramateko ohitura daukat, nahiago dut guztia programatuta izatea, agentziarekin edo lagun batekin bestela.



**Iker Egidazu**

Egia esan, ez dut bidaia askorik egiten baina kanpora irten naizenean nahiago izan dut tokiak nire kontura edo lagunengandik ezagutzea.



**Edurne Begiristain**

Kanpora joaten naizenean beti toki ezagunetara joaten naiz, Benidormera edo Fuengirolara... Ez dugu turismo bulegoen beharrik izaten.



**Mayra Jimenez**

Ez, normalean nire kontura ibiltzen naiz eta, tokian tokian, interesatzen zaizkidan gauzak ikusten ditut, lagunengandik gomendioak jarraituz edo gidak erabiliz.



**Javier Gonzalez**

Nik karro-denda eramaten dut eta nire kontura ibiltzea gustatzen zait. Lagunengandik edo giden bitartez informatzen naiz eta ez dut arazorik izaten.




*Ondo pasa San Martzialetan!*

# Manso Hnos. S. A.

Lambion zuri, beltz eta gorri bereziak

Amillaga, 11. 123 posta kutxa, Bergara. Tf. 76 14 48 -76 14 49

**ARREGUI, E.M.**



**ARROZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
  - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
  - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38





## Campbell eta Cortes

Naomi Campbell bere buruaz beste egiten saiatu da. Gertaizunari ez diot harrigarritasunik kentzen, azken finean askok galdetu diogu gure buruari nola itxuraz guztia duen neska honek halako zerbait egin ahal izan duen.


Baina neretzat gakoa ez dago hemen, hona hemen nere titularra: "Prensa arrosak informatiboen merkatua irabazten du". Azalduko dut: telebistan jende ospetsuari buruzko hainbat eta hainbat saio daude, gero eta gehiago. Bakoitzak askatasun osoa dauka saio horiek ikusi edo ez ikusteko, azken finean bakoitzaren gustoa hori da, askatasunez aukeratzeko ahalmena.

Baina aste honetan Naomi eta Antonioren ipi-apak ezagutze-ko ez genuen ohiko saioak ikusteko itxaron behar, kate desberdinetako informatibo guztietan agertu da notizia, batzutan baita titularretan ere, notizia inportanteen taldean alegia, gehienetan hiruzpalau eguneko jarraipena egin diotelarik gainera.

Laister ez ditugu aurkezle salauak beharko famatuen bizitzen gora beheren berri emateko, Ana eta Sukerren ezkontzaren berri emango digu Luis Mariñasek, Isabel Gemioaren dibortzioaren berri Carrascalek, Lequioren amodioen berri Ana Blancok eta Mar Floresen haurdunaldiaren berri Uxue Barkosek.

Kontsola gaitezen, behintzat informatiboak alaiagoak izango dira, dudarik ez".

**Nora ASKARGORTA**



## Ardua, berua eta dirua

Domekan Pikulitxa baiño urrutixau dauan Oionen 40.000 lagun bildu zien Araba Euskaraz jaixa ospatzeko. Espero beste ez, baiña antolatzaillak pozik. Behinguagaitik goiz samar-junda ta ibilbidera ailegau orduko, hantxe ikusi genitun agintari guztixak izerditan, eguzkixak danontzat joten zeban, abixada politan bueltia emoten.

Bertan banatutako Jaurilaritzaren liburutxo batian esaten dabe 1981ian Arabako Errioxan 80 lagun ziela euskaldun eta 1991n 662. Ezta makala eindako aurrerapena, kontuan izanda biztanliak 9.382 direla. Garbi dao Oioneko eta inguruko ikastolak eragin haundixa eukiko zebela, baiña hor badao beste kontu bat, pertsona helduak euskalduntzeko lana. Oionen bertan badao euskaltegi bat eta bertatik inguruko herri askotara joaten die eskolak emotera. Ahalegiña haundixa, diru gutxi, euskara ikaste-ko batzuen gogua hutsa,... baiña aurrera segitzen dabe eta lortu be bertan jaixotako batzuk irakasle izatia ta euskara bultzateko Tiki-Ttaka taldea sortzia. Txapeau!


Oiñartian polita, ezta? Baiña zirkuitoan izerditan zeren agintarixak ahaztu eñ jatzue? Eztakit IKAk Oionen daukan euskaltegi-ira joango zien; dana dala, Errioxako irakasliak ondo ezagutzen dabe politiko horrek urtian zihar eitten dabena: ikasle-orduko 60 pezeta mixerable emoten dotse (urtian 2.640.000 pezetako subentziñua), beste iñun baiño askoz be gutxia; gaiñera ezin die urtian 44.000 eskola-ordu baiño gehixau emon eta ikasle gehixauk ikasi nahi badabe, zer? Eztauke ikasterik! Edo hobeto esanda, palo! Hau da, zigorra. Horrek zer esan nahi dau? Euskaltegixan ikasle gehixau hartuz gero, ikasle bakoitzeko subentziño mixerable hori txikitu eitten dabela. Horregatik ezta euskara-ikasleen kopurua haunditzerik. Nun eta Arabako Errioxan!

**Asis IRIONDO**

## POL-POL

### Taberna

☎ 76 07 78



## EGUREN

### GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behea

☎ 76 21 65 / 76 24 45

## GURIDI altzariak

### Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

## BENITA GALLASTEGI

### Erakusketa



## NAHIKARI taberna

Masterreka, 20 Tf. 76 57 71



■ Kolaboratzaile fina

Joan zen eguasteneko odol ateraldian, **Bergarako Odol Emaleen Elkarteko** kideek **Maria Pilar Larrañagari** sorpresatxo bat prestatu zioten. Maria Pilarrek ezkondu zeneko urrezko eztaiak ospatu berri ditu eta, horrez gain, 22 urte inguru daramatza herriko odol emaleekin kolaboratzen. Hori dela eta, odol ateraldiko lanekin amaitu bezain laister, bere lagunek opari bat entregatu zioten orain arte egindako lana eskertu eta gizonarekin batera egindako urrezko eztaiak

zoriontzeko. Sorpresaren ondoren, giro ezinhobean, bildutakoek ohiko luntxa egin zuten. Argazkian Maria Pilar Larrañaga (eskuman) **Begoña Irastorzaren** eskutatik oparia jasotzen. Zorionak!!

■ Ikasturteari agur

**Musika Eskolako ikasleek** kontzertu sorta eskeini dute Zabalotegiko aretoan joan zen eguakitzetik atzo eguenera arte. Ikasleek, kurtsosan zehar ikasitakoa erakusteko, nerbioak ahalik eta ondoen gainditu, eskenatokira igo eta jendeaurrean beren maila erakutsi dute. Jende dexente hurbildu da Zabalotegira eta, kurtsuari amaiera emateko



antolatutako kontzertuetan parte hartu duten 200 bat ikaslek (9 urtetik 20 urtera bitartekoak gehienak) instrumentu ezberdinekin zein ahotsarekin duten teknika azaldu dute. Hauek ez dute desafinatzen, ez...

**Gallastegi**  
*Jostundegia*  
 Mahoizko lanerako jantziak  
 San Pedro ☎ 76 10 85

**KONDE**  
  
 Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

ARTISAUTZAKO IZOZKIA  
**GOXO-TOKI**  
 D. Irala, 3 - Tlf. 761235  
 Matxalegi, 34 - Tlf. 762337  
 BERGARA



■ Egin 20 urtez

Egin egunkariaren 20. urteurrena ospatzeko antolatutako erakusketa ikusgai dago egunotan **Pol-Poleko erakustokian.**

Erakusketa astelehenean zabaldu zen eta domekara arte ikusgai izango da, zapatu eta

domekan 12:30etatik ordu bietara eta arratsaldean, 7etatik 9etara. Bertan jarritako paneletan, 20 urte hauetan Eginen argitaratutako portada aipagarrienak, sei panel tematiko, hainbat pertsonaiaren esaldiak edo prentsa idatziak jasandako aldaketa teknologikoak ikusi ahal izango dira. Era berean, Egin egunkariaren 20. urteurrenaren inguruan antolatutako ospakizunen barruan, bihar zapatua herri afaria egingo da Artatse elkartearen.

■ Omenaldi bazkaria



Domekan, **Jose Antonio Ugarteren** apaiz-bizitzako bete dituen **urrezko eztaiak** ospatzeko, bere omenezko bazkaria izan zen Antxoni jatetxean. Bertan 105 lagun bildu ziren (ez zen jende gehiago sartzen) eta Jose Antoniok omenaldi beroa jaso

zuen bere lagunaren partetik. Bazkalaurretik, Santa Marinan Meza Nagusia eman zuen Jose Antoniok eta jarraian hainbat opari jaso zituen (Arantxa bere arrebari ere lora sorta ederra entregatu zitzaion). Esan bezala, bazkarian primerako giroa izan zen eta guztiek ederki ospatu zuten Jose Antonioren 50. urteurrena. Argazkian, **Xabier Zubizarreta, Jose Antonio Igartua eta Arantxa**, Jose Antonioren arreba. Zorionak!!

**Zertan dihardute ba?**



**Mikel Larrañaga**

Antzuolako futbol taldeko entrenatzaile eta jokalaria. Antzuolan jokatzeko jarraituko du, Eibarreko preferente mailako taldearen eskeintzari ezetzta eman ondoren. Javi Perez Eibarko taldearen arduradun teknikoetako batek ondo baino hobeto ezagutzen du Larrañaga, Bergarako talde nagusian bere aginduetara izan baitzuen. Perezek Eibarreko bigarren taldean jokatzeko proposamena luzatu zion Mikeli baina honek nahiago izan du datorren denboraldian Antzuolako taldearekin lehen errejonalean aritzea.

**igok eta Txomin**

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak. Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA  
☎ 76 60 39

BERGARA  
☎ 76 19 98

**ZUBIETA**  
elektragarintza

MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTITAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48

**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

# Juan Luis Mardaras

**Euskadiko Kutzako Fraiskozi-riko bulegoko langilea, Juan Luis Mardaras Eibar futbol taldeko presidentea dugu 88tik. Aurten bere taldea lehen mailarako atarian geratu da.**

- Domekan negar egin zenuen?
- Ba, ia-ia...
- Zela bizi izan zenuen partidua?
- Oso urduri, Sudupe diputatuaren eta Arriola alkatearen ondoan.
- Nerbioak gainditzeko, zer?
- Ez dakit horretarako formularik.
- Purorik erretzen duzu?
- Bai, batekin nahikoa izaten dut.
- Zer falta zitzaion Eibarri domekan?
- Erremate orduan finago aritzea.
- Zenbat diru uste duzu jaso zutela Osasunakoek?
- Ezin dut esan, ez dakit eta.
- Amaieran zer esan zenion Osasunako presidenteari?
- Ezer ez, bakoitza bere aldetik...
- Eibarrek maletinik bidali du?
- Ez. Nori bidaliko diogu ba?
- Eta jaso?
- Bai, Albaceteri irabazi genionean.
- Zein izaten da bitartekaria?
- Jokalariak normalean.
- Bigarren mailako talderik jatorrena?



*“Eibarrek ez du aurten maletinik bidali baina jaso bai, Albaceteri irabazi genionean. Aukera izanez gero Raul edo Figo fitxatuko nituzke. Lehen mailan 500 bat milioi irabaziko genituzke”*

- Merida.
- Eta antipatikoen?
- Toledo.
- Lehen mailarako atzerritarrik fitxatuko luke Eibarrek?
- Ez dut uste.
- Zenbat diru irabaziko luke Eibarrek lehen mailan?
- 400-500 bat milioi bai.
- Aukera izanez gero, zein jokalaria ekarriko zenuke?
- Raul edo Figo.
- Eibarreko jokalaririk garestiena?
- Juanjo.
- Eta jokalarik onena?
- Artetxe.
- Zer falta zaio Eibarri?
- Dirua. Fitxaketetarako eta jokalaria bertan geratzeko.
- Noiztik Eibarreko bazkidea?
- 35 bat urtetan.
- Oroitzapenik onena?
- 90ean, Sarrián, 2.B mailarako jeitsiera ebitatu genuenean.
- Eta txarrena?
- Traspasoengatik dirurik lortzen ez den bakoitzean.
- Zela heldu zinen presidente izatera?
- Administrazio lanetan hasi eta ia behartuta hasi nintzen presidente.
- Arrate ala Uranga?
- Biak.
- Diplomatiakoa izan behar da?
- Batzutan bai.
- Nolatan Barcaren jarraitzailea?
- Kolore antzekotasunengatik edo...

## EDEL

### TAPIZDENDA

*Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta, 14 BERGARA**

**%20ko beherapena**  
erakusketa  
aldaketagatik

**Rincones** dekorazioa

Irala,z/g Bergara Tf. eta faxa 76 52 98

**ETXEBIZITZA**

**Pisua** salgai Matxiategin.  
☎ 76 56 99.

**Pisua** salgai Zubiaurren  
(ganbararekin).  
☎ 76 49 30.

**Pisua** eta garajea salgai  
San Lorentzon. ☎ 76 51 45.

**Etxea** salgai San Anto-  
nion. 2 ganbara. ☎ 76 46 22.

**Pisua** alokairuan Laredon.  
☎ 76 13 86 (gauzez).

**Industri** pabiloia alokai-  
ruan. 500 m<sup>2</sup>. ☎ 76 43 37.

**Pisua** salgai Frontoian. 160  
m<sup>2</sup>. ☎ 76 24 42.

**Pisua** salgai Masterrekan.  
Berriztua. ☎ 76 08 67.

**Garajea** saltzen edo alo-  
katzen da Santa Marinar.  
☎ 76 47 27.

**Pisua** alokairuan udan Do-  
nostian, Amara auzoan.  
☎ 76 31 79.

**Pisua** alokairuan hartuko  
nuke. ☎ 909 39 47 03.

**Pisua** salgai Aranerrekan.  
☎ 76 42 65 (gauzez).

**Etxea** salgai Koldo Eleizal-  
den. ☎ 76 23 84.

**Apartamentua** salgai  
Laredon. ☎ 76 44 34.

**Pisua** salgai Aranerrekan.  
☎ 76 50 50.

**Pisua** alokairuan hartuko  
nuke. ☎ 79 37 80 (goizez).

**DENETARIK**

**Fax** eta erantzungailu  
berriak salgai. ☎ 76 31 80.

**Renault 5** kotxea (SS-O)  
salgai. ☎ 76 10 91 (gauzez).

**Mastin** eta belgiar artzai  
txakurraren arteko txakurra  
oparitzen da. ☎ 76 47 45.

**Umeentzako** kapota eta  
paseorako aukia behar  
dut. ☎ 76 46 48.

**Opel Kadett** kotxea sal-  
gai. ☎ 76 45 57.

**Lau** urteko neskatila ba-  
ten jertsei gorria (eskuz  
egindakoa) galdu da Zer-  
Nai ondoan. ☎ 76 32 94.

**Renault 5 GT** Turbo ko-  
txea salgai. ☎ 909 56 90  
45/ 76 57 87.

**Peugeot 205** kotxea (SS-  
AG) salgai. ☎ 71 61 21.

**Kotxeko** irrati ekipoa sal-  
gai. ☎ 76 04 40 (gauzez).

**Kontsola** bat salgai. 100  
joku. ☎ 76 38 71.

**Taxi** plaza eskualdatuko  
nuke Bergaran. ☎ 76 44 04.

**Honda Scoopy** motorra  
salgai. ☎ 76 15 06.

**GAC** motorra salgai. 65.000  
pezeta. ☎ 76 47 45.

**LANA**

**Ingeles** klaseak uztailen  
(goizez). ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Neska** euskaldun batek  
orduka lan egingo luke.  
☎ 76 23 41 (Itsaso).

**Etxeko** lanak egiten ditut.  
☎ 76 32 58 (Ana).

**Ingeles** klaseak ematen  
dira. ☎ 76 23 67/76 22 90.

**UBI**ko marrazki teknikoko  
maisua behar da. ☎ 765167.

**Neska interna** behar da  
andra bat zaindu eta etxeko  
lanetarako. ☎ 76 07 24.

**Etxeko lanak** egingo  
nituzke. ☎ 76 04 57.

**1.go** eta 2. hezkuntzako kla-  
seak uztailen. ☎ 76 42 08.

**Tabernaria** eskeintzen  
da. ☎ 76 50 58.

**Haurrak** zainduko nituz-  
ke. ☎ 76 04 34.

**Udan** lan egingo nuke.  
☎ 76 43 39 (Lorea).

**Informatika**, fisika eta  
mate klaseak ematen ditut.  
☎ 7646 03.

**Matematika**, fisika eta ki-  
mika klaseak uztailen eta  
abuztuan. ☎ 76 70 40.

**Neska** euskaldun batek  
haurrak zaindu edo taber-  
nari lanak egingo lituzke.  
☎ 76 34 83 (Nerea).

**Matematika**, fisika, kimi-  
ka eta diedriko klaseak uztai-  
lean. ☎ 76 24 31.

**Neska** euskalduna behar  
da haurrak zaindu eta etxe-  
ko lanetarako. ☎ 76 29 81.

**Emakume** euskalduna  
eskeintzen da haurrak zain-  
du edo etxeko lanetarako.  
☎ 76 13 46.

**FRANTSSES  
IRAKASKUNTZA**

Ikastaro **trinkoak**  
uztailaren 2tik 22ra

Izena emateko epea:  
ekainaren 27ra arte.

**Informazio gehiago:**

Mizpildi, 3 1. ezkerre. Bergara.  
Tf. 76 30 55

Ordutegia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00

**TABERNA  
ZAHARRA**

*Jatetxea*

bazkari eta  
afariak

**Tfnoa: 76 21 21  
ANGIOZAR**

# MUNDUKO MUSIKA



Afrika 1



Afrika 2



Kuba



Atlas Etnikoa



Afrika 3



Salsa



Flamenkoa



Zeltiar Sustraia

Doinuz doinu, entzun herrien arnasa  
euren musikaren taupadaz  
iraupen luzeko zortzi disko konpaktut

Ekainaren 21etik aurrera,  
asteazken eta larunbatetan **Egunkaria** + 550 nta

A TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ARLOTEAK OILAGORRA	15	5	10	0
2. MONGATXURRAK	9	5	11	8
3. EZINLEIKE	9	5	10	8
4. MANITOU LAM	8	5	13	6
5. ANGIOZAR	6	5	11	8
6. XURRUPAK	5	5	10	8
7. LA JUVE	4	5	7	9
8. COAR	0	5	4	24

B TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. BILDEBAREK OPEL/LAM	10	4	16	4
2. MATXAKATEGI	9	4	5	3
3. A ZE FLAXA ETXAGI	8	4	11	2
4. OSINTXU	6	4	6	9
5. FACUTA	5	4	7	5
6. ALTOS PORNOS	3	4	5	15
7. THE KILLERS	2	4	2	6
8. SHAKTALE	1	4	3	14

## EMAITZAK

LA JUVE-ANGIOZAR	2-2
COAR-MONGATXURRAK	1-3
FACUTA-ALTOS PORNOS	4-1
BILDEBAREK OPEL/LAM-THE KILLERS	1-1
MATXAKATEGI-OSINTXU	2-0
A ZE FLAXA ETXAGI-SHAKTALE	7-1
EZINLEIKE-MONGATXURRAK	1-0
ANGIOZAR-COAR	5-1
ARLOTEAK OILAGORRA-LA JUVE	3-0
XURRUPAK-MANITOU LAM	1-1

## PARTIDUAK

### Eguakitza 20

19:15: ALTOS PORNOS-MATXAKATEGI  
20:30: BILDEBAREK OPEL/LAM-FACUTA

### Astelehena 23

19:15: EZINLEIKE-MANITOU LAM  
20:30: LA JUVE-XURRUPAK

### Martitzena 24

19:15: COAR-ARLOTEAK OILAGORRA  
20:30: MONGATXURRAK-ANGIOZAR

### Eguastena 25

19:15: THE KILLERS-FACUTA  
20:30: MATXAKATEGI-BILDEBAREK OPEL/LAM

### Eguena 26

19:15: A ZE FLAXA ETXAGI-ALTOS PORNOS  
20:30: SHAKTALE-OSINTXU

# Jokoz kanpo



## IBON LEIBAR

### IKUSLEA

#### ASTEAN ZENBAT PARTIDU IKUSTEN DITUZU?

Ez dakit, baina egunean bat edo.

#### EZ ZARA ASPERTZEN?

Ez.

#### JOKATUZ GERO GOLEN BAT SARTZEKO GAUZA IZANGO ZINATEKE?

Txikia naiz, baina zeinek daki...

#### IKUSI DUZUN PARTIDURIK ONENA?

Xurruapak eta Ezinleike taldeen artekoa, gol asko izan zirelako.

#### ETA TXARRENA?

Arloteak-Xurruapak.

#### TXAPELKETA IRABAZTEKO FAVORITORIK?

Bildurbarek Opel/Lam eta Mongatxurra.

#### TXAPELKETAKO JOKALARIRIK ONENA?

Bildurbarek Opel/Lam taldeko Ibon Larrañaga.

#### ZE TALDE GUSTATZEN ZAIZU GEHIEN?

Arloteak Oilagorra.

#### ARBITRAIAK ZER MODUZKOAK DIRA?

Batzuekin beti izaten dira arazoak; beste batzuk, berriz, ondo arbitratzen dute.

#### JOKO ZIKIN ASKO IKUSTEN DA?

Ez. Aurreko urteetan protesta gehiago izaten ziren.

#### LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Julen Guerrero.

#### ETA TALDEA?

Athletic de Bilbao.

#### FUTBITOA ALA FUTBOLA?

Jokatzeko futbola, ikusteko futbito.

## KOMENTARIOA

ARLOTEAK OILAGORRA ETA LA JUVE TALDEEK EGUASTENEAN JOKATU ZUTEN PARTIDUAN, BIGARREN ZATIA HASI ETA BERTAN BEHERA GERATU ZEN, LA JUVE 7 JOKALARIREKIN GERATU ZELAKO. IZAN ERE, LEHENENGO ZATIAN ARBITROAK TALDE HORRETAKO BI JOKALARI KANPORATU ZITUEN: BATA ARLOTEAK OILAGORRAKOKO JOKALARI BATEKIN IZANDAKO HIKA-MIKA ETA HITZ ZATARRREN ONDOREN, ETA BESTEA EPAILEARI ZEIN AURKARIEI IRAINAK EGITEAGATIK. HALABER, ARLOTEAK OILAGORRAKOKO JOKALARI BAT ERE KANPORATU EGIN ZUEN EPAILEAK. BIGARREN ZATIAN LA JUVE TALDEKO BESTE JOKALARI BAT KANPORATUA IZAN ZEN BI TXARTEL HORI IKUSI ETA GERO. EPAILEAK LA JUVE TALDEKO HIRU JOKALARI BOTA ONDOREN, ETA PARTIDUA 10 JOKALARIREKIN HASI ZUELA KONTUTAN IZANDA, 7 JOKALARIREKIN GERATU ZEN LA JUVE ETA ARBITROAK PARTIDUA SUSPENDITU BEHARRA IZAN ZUEN. ONDOREN, ALDAGELAN BIDEAN MOMENTU "BEROAK" BIZI IZAN ZIREN ETA ALDAGELETAN IA ESKUETARA HELDU ZIREN LA JUVEKO JOKALARI BATZUK ETA EPAILEA. GERTAKARIAK BENETAN PENAGARRIAK DIRA ETA "HARRIGARRIENA" DA EGUASTENEKO ISTILUETAKO "PROTAGONISTAK" BESTE BATZUETAN ERE HAINBAT ISTILU SORTUTAKOAK DIRELA. BADI RUDI BATZUK SEKULA EZ DIRELA ALDATZEN ETA HORRELAKO TXAPELKETETAN JOKATZERA ETA LAGUNARTEAN ONDO PASATZERA JOAN BEHARREAN AURKAKOARI MIN EGITERA ETA GIROA NAHASTERA JOATEN DIRELA. BESTALDE, EZ DA OSO ULERGARRIA IKUSLE BATZUEN JOKAERA, HORRELAKO GERTAKARIEN AURREAN TXALOKA HASTEN DIRELAKO. IKUSLE HORIEK ARGI IZAN BEHAR DUTE HORRELAKO ISTILUAK ASKOTAN GERTATUZ GERO, AGIAN, DATORREN URTEAN IPINTZAN EZ DUTELA ZER TXALOTURIK IZANGO, EZ BAITA TXAPELKETARIK ANTOLATUKO.

## GOLEGILEAK

## BERRIGARA

### 6 Gol

Juan Luis Etzaniz (BILDEBAREK OPEL/LAM)

### 5 Gol

Igor Alberdi (MANITOU LAM)

### 4 Gol

Asier Alberdi (EZINLEIKE)

### 3 Gol

Harkaitz Arana (ARLOTEAK OILAGORRA),

Gustavo Abajo (BILDEBAREK OPEL/LAM),

Markos Alonso (OSINTXU), Gorka Davila (XURRUPAK),

Jabi Ibarra (A ZE FLAXA ETXAGI), Enrike Marzana

(ANGIOZAR), Eneko Beistegi (ARLOTEAK OILAGORRA).

### 2 Gol

Iñigo Herreros (LA JUVE), Peli Iturrikastillo (MANITOU

LAM), Miguel Arregi (EZINLEIKE), Andoni Arrojo eta

Xabi Zangitu (MONGATXURRAK), Ibon Larrañaga

(BILDEBAREK OPEL/LAM), Mikel Garitano eta Oier

Bolibar (XURRUPAK), Josetxo Lizarralde (ALTOS

PORNOS), Ander Berraondo (FACUTA).

### BKEren Batzar Orokorra

Bergara Kirol Elkarteak urteko Batzar Orokorra egingo du gaur, eguakitza, arratsaldeko 7etan Kultur Etxean. Iñigo Zaitegi buru duen Zuzendaritza Batzordeak, 4 urte bete ondoren, kargua lagatzeko asmoa azaldu du eta atzora arte, behintzat, kirol elkartearen zuzendaritza hartzeko ez zen inor prest agertu. Horregatik, zuzendaritzako elkarte bazkideei eta kirolean interesurik dauden bergararrei batzarrean parte hartzeko deia luzatzen diete. Zuzendaritzaren aukeraketaz gain, elkarteko sail ezberdinek urteko balantzea egingo dute eta datorren urterako asmoak azalduko dituzte.

### San Martzial txirrindularitza saria

Lehen urteko kadeteentzako San Martzial saria jokatu da zapatuan goizeko 10:30etatik aurrera. Irteera Ibargarai kalean egingo da eta txirrindulariek 47 kilometro bete beharko dituzte. Helmuga toki berean izango da eta 11:30etarako lehenengo txirrindulariak bertan izatea espero da. Lasterketa irabazteko faboritoen artean Igoitz Gabilondo bergararra dago.



### A Ze Flaxa Etxagi txapelkun

A Ze Flaxa taldea izan da Labegarrietako Futbito Txapelketako irabazlea, finalean joan zen zapatuan Manitou taldeari 5 eta 3 irabazi ondoren. Lehen mailako liderraren esperientzia 4. mailako liderraren gaztetasuna baino erabakiagorragoa izan zen. Hirugarren eta laugarren posturako partiduan, berriz, Pagomendik 4 eta 3 irabazi zion Mongatxurra taldeari. Datorren urteko txapelketarako izena emateko epea irailaren 9an bukatzen da eta antolatzaileek 48 talde onartuko dituzte.

### Peru Sagarna irabazle

Peru Sagarnak irabazi zuen joan zen zapatuan San Antonion jokatuak bigarren urteko kadeteentzako lasterketa. Gaur egungo Gipuzkoako txapelkunak Zubiberri sagardotegi parean ihes egin zuen eta Espoiloiko helmugara 6 segunduko aldearekin heldu zen. Talde bereko Ander Agirrek ere lasterketa bikaina egin zuen eta 3. postua eskura zuenean erori egin zen. Lokatza-Sumofic taldekoek astebukaeran Tolosan izango dute lasterketa eta, ondoren, Azpeitian Gipuzkoako txapela defenditzeko aukera izango du Sagarnak.



### Urrezko domina

Antxon Maiztegi igerilari bergararrak Euskadiko Kadete mailako urrezko domina irabazi zuen 100 metro tximeleta proban joan zen astebukaeran. Halaber, 200 metro estilo, 100 metro sorbalda eta 100 metro askeetan 10 onenen artean sailkatzea lortu zuen igerilari gazteak. Santurtzin lortutako urrezko dominarekin Maiztegik bukaera ezinhobea eman dio aurreko egindako denboraldi bikainari. Bestalde, Eneritz Muguruzak datorren hilean jokatu diren Espainiako txapelketan parte hartzeko txartela lortu du.



**Futbito**  
**NESKEN**  
**TXAPELKETA**

■ EMAITZAK

Power Rantxeras-Potzu. **4-1**  
LTB-Gu Geu. **1-4**  
PWA-Burdinezko Damak. **2-3**  
Nahikari-The Hurricanes. **3-0**

■ PARTIDUAK

**PWA-LTB**  
Zapatua. 12:00. Miguel Altuna.  
**Potzu Ta Zapaburuak-Nahikari**  
Domeka. 16:00. Miguel Altuna.  
**Blue Star-Burdinezko Damak**  
Domeka. 16:00. Miguel Altuna.

■ PENALTIAK



**Edurne Azuara**  
**POWER RANTXERAS**

**ZEIN DA TXAPELKETAKO**  
**JOKALARIRIK ONENA?**

Silvia Valor.

**ETA TALDEA?**

Power Rantxeras.

**ZE POSTUTAN GUSTATZEN**

ZAIZU JOKATZEA?

Atzealdean.

**LIGAKO JOKALARIRIK ONENA?**

De la Peña.

**DE PEDRO ALA ALKIZA?**

Alkiza.

**BESTE KIROLIK EGITEN DUZU?**

Bai, aerobic-a.

■ SAILKAPENA

1. Power Rantxeras  
30 puntu.
2. LTB  
27 puntu.
3. Potzu ta Zapaburuak  
23 puntu.
4. PWA  
19 puntu.

# Eneko Iturrospe

## Gipuzkoako piraguismo txapelduna

**Eneko Iturrospe infantil "A" mailako Gipuzkoako piraguismoko ur bizietako txapelduna da. Eskola kirolari esker piraguismoa egiten hasi zen eta dagoeneko 2 urte daramatza. Aurten 5 probatan parte hartu du eta 4 garaipen lortu ditu lehorreko arraunlari honek.**

**- Zelakoa da ur bizietako Gipuzkoako txapelketa?**

- Bidasoa errekan jokatu zen eta 10 ate pasatu behar izan genituen. Ez dakit ze distantzia zegoen, baina minutu eta piku inguru eman nituen proba egiteko.

**- Hain motza den proba irabazteko zer behar da?**

- Ateak ez ikutzea oso garrantzitsua da. Ikutzen duzun ate bakoitzeko 2 segundu gehitzen dizute. Horrez gain, azkar joan behar da. Hori lortzeko besoetan indarra edukitzea eta piragua ondo menperatzea garrantzitsua da.

**- Asko kostatzen da piragua menperatzea?**

- Lehenengo urtean ez ginen lasterketetara joaten, aurten hasi gara lehian. Joan zen urtean igerilekuan piragua ondo menperatzen aritu ginen. Lehenengo irteera Deba errekarara egin genuen eta Mekolalden ibili ginen.

**- Arriskutsua da ur bizietan aritzea?**

- Arriskutsuena harriak dira. Nik ez dut harriekin arazorik eduki, baina lagun baten pira-

guarekin harri baten kontra jo eta punta apurtu nion.

**- Kostaldeko klubek zer esaten dizute lasterketak irabazten diezunean?**

- Ez didate ezer esaten. Halere, arraroa egiten zaie. Izan ere, Santiagotarrak eta horrelako taldeetakoak egunero ibiltzen baitira errekan entrenatzen.

**- Aurten zenbat lasterketa izan dituzu?**

- 5 lasterketa jokatu ditut eta batean bigarren geratu naiz eta beste lauretan irabazi egin dut.

**- Beste kirolik egiten duzu?**

- Asteburuetan aitarekin mendira joaten naiz eta eskolan pilotan jokatzen dut. Futboleant ez dut jokatzen oso txarra naizelako.

**- Zenbat denbora aritzen zara entrenatzen?**

- Neguan zehar astero 4 ordu entrenatu dut kanpoaldeko igerilekutan. Orain, berriz, astero bi ordu sartzen ditugu igerilekuko gimnasioan. Batez ere alde fisikoa lantzen dugu, txapelketak dagoeneko bukatu baitira. Asteburuan erreketara irteerak egiten ditugu. Errobi eta Bidasoa erreketara joaten gara.



Bi urte daramatza piraguismoan eta 5 garaipen lortu ditu.

**“Ur bizietan arriskutsuena harrien kontra jotzea da”**



Argazkia: Pol-Pol Mendizale Taldea

## Pol-Poleko gaztetxoak Aizkorrin, 1980

**P**ol-Pol Mendizale Taldeko argazki artxiboa miatuz, orain dela 17 urteko argazki hau topatu dugu. Bertan agertzen direnak orduko herriko mendizale gaztetxoak ditugu eta domekero, lagunartean, mendi irteeraren bat egiteko ohitura zeukatenak. *Beteranoen* laguntzaz inguruko tontor guztiak zapalduko zituzten eta horren lekuko goiko argazkia dugu. Eguraldi baldintza txarrenei ere aurre eginez, goraino heltzen ziren beti. Aizkorriko lehengo gurutzearen ondoan agertzen direnak hauek dituzue, ezkerretik eskumara:

**Atzean:** Ion Altuna "Oxan", Aitor Alberdi, Igor Goirizelaia, Imanol Rementeria, Xabier Lijo, Isaak Lazkano (makilarekin), Mikel Alberdi, Jose Luis Osinalde, Asis Iriondo, Txema Arenaza, Karmelo Iturrospe, Loli Larrañaga eta Asier Zabarte (erdi ezkutatuta dagoena).

**Aurrean:** Unai Salaberria, Iñigo Elkoro, Markos Perez, Imanol Arregi, Xabier Alberdi "Sato" eta Felipe Landa (argazkiaren ertzean).

Industria  
hornikuntzak



Industriaren  
alde

### MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxe: 79 47 89  
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxe: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

## umelaga

### JATETXEA

**ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!**



## ETXE BERRIA

### ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

## Bolintxo


OKINDEGIA

domeketan ere zabalik

Zurradero, 2 beheha - Telefona 76.01.26

# Automobil aseguruak

Mapfre abantailak



Zure kotxeko aseguruaren abantailei buruzko zehaztapen guztiak emango dizkizugu. **Zatoz eta galdetu!!**

 **MAPFRE**  
MUTUALIDAD

Simon Arrieta 3, Bergara  
☎ 76 28 79 / 76 18 80

Aprobetxatu udaldia  
GIDA BAIMENA  
ateratzeko

*Izena ematean  
%10eko beherapena  
Gazte Txartelarekin*

 **ARRAÑAGA**

A U T O E S K O L A

Artekalea, 22 BERGARA / Tf. 76 16 63

Santa Ana ELGOIBAR / Tf. 74 10 11

**LOGELETAN** espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.  
 Batetik, kalitate eta diseinu  
 handieneko logelak, garantia osoarekin.  
 Bestetik, logela merkeen artean  
 merkeenak.

**BENETAN  
 HARRIGARRIA!**

**LARUNBAT ARRATSALDEETAN ZABALIK!**

Araba Etorbidea, 5 • Eskatu Pabiloia • ARRASATE • Tel./Faxa: 79 41 82

**ARKAUZ**

**sukalde integrala**

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaiak  
 Betiko muntaiak



Mitarte, 3 • ARETXABALETA • Tel. / Faxa: 77 04 55